

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

326/2019 Foru Dekretua, uztailaren 5ekoa, Diputatu nagusiarena. Honen bidez, foru diputatuen esku uzten dituen ordainketa formalarekin eta materialarekin zerikusia duten zenbait ahalmen

Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolakuntza, Funtzio-namendua eta Araubide Juridikoa arautzen dituenak, 19.19 artikuluan ezartzen du diputatu nagusiari baino ez dagokiola ordainketak egitea; nolana ere, eskumen hori foru diputatuen esku utzi ahal izango du, eskuartean darabilten gaia zein den, halaxe xedatzen baitu foru arau horrek 93.2 artikuluan.

Ordainketak agintzeak bere baitan hartzen ditu, bai Arabako Lurralde Historikoaren Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauak 75.2 artikuluko "ordainketa agintzeak" sortzen duen legezko gastuari darizkion betebeharrak kitatzea, bai aipatutako 75.2 artikuluko horretako e) idatz zatiko "ordainketa gauzatzeak" esan nahi duen ordainketa materiala. Ordainketa material hori librantza edo ordainketa agindu baten bidez egiten da eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren eskumena da.

Eskuordetze hori foru arauak foru organo bakoitzari bere esparruan aitortzen dioten gastatzeko ahalmenarekin dago lotuta. Ahalmen horren muga diputatu nagusiaren ahalmena, "obligazio aitortuak" izenekoak, da, baldin eta gastua egiteko aginpide hori Foru Gobernu Kontseiluari badagokio.

Administrazioaren eraginkortasuna, efikazia eta azkartasuna lortze aldera, gomendagarria da aipatutako eskumenak eskuordetzea.

Ondorioz, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz eta 52/1992 Foru Arauak 19.19 eta 93. artikuluetan xedatutakoaren babesean, ondokoa

XEDATU DUT

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiko sailtako foru diputatuen esku uztea diputatu nagusiaren ahalmenak, dagokion foru organoak emandako ebazpenaren bidez egindako gastuei darizkien betebeharrak kitatzeko, baldin eta Arabako Lurralde Historikoaren Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren 75.2 artikuluko c) eta d) idatz zatiek adierazitako aurrekontu partidek foru diputatu horien aginpideko sailek eragindako zorra ordaintzeko badira eta ordainketa hori Foru Gobernu Kontseiluak agindu behar ez badu.

Bigarrena. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren esku uztea ordainketa gauzatzea. Ordainketa hori librantza edo ordainketa agindu baten bidez egingo da, halaxe xedatzen baitu Arabako Lurralde Historikoaren Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak 75.2 artikuluko e) idatz zatian.

Hirugarrena. Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 134/2015 Foru Dekretua indargabetzea.

Laugarrena. Foru dekretu honek bera ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 5a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE